



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**ERABAKIA, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, 2022ko maiatzaren 19ko gerentearen erabaki bidez deitutako "Itsas Jardueretako Teknikari Espezialista" lan-poltsa gaurkoratzeko hautaketa-prozesuan onartuak eta baztertuak izan diren hautagaien behin betiko zerrenda onartzeko.**

Gerentearen 2022ko maiatzaren 19ko erabakiaren bidez "Itsas Jardueretako Teknikari Espezialista" lan-poltsa gaurkoratzeko hautaketa-prozesua deitu zen eta erabaki horren eranskinean deialdi hori arautuko duten oinarriak jaso ziren.

2022ko ekainaren 22an onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda argitaratu zen. Zerrenda horri erreklamazioak egiteko epea bukatu ondoren, ez dago erreklamaziorik.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

#### **ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.**- "Itsas Jardueretako Teknikari Espezialista" lan-poltsa gaurkoratzeko hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko erantsitako zerrenda onartzea.

Lehiakideak hautaketa-prozesuetan behin betiko onartzeak lehiakideek prozesu horietan eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela ulertzea dakar, lehiakideek aurkeztutako eskaeretan egiazkotzat aitortu dituzten eta eman dituzten datuen arabera. Edonola ere, lehiakideen behin betiko onarpena 9.2 oinarrian adierazitakoari kalterik egiteke ulertuko da.

**Bigarrena.**- Erabaki hau UPV/EHUK horretarako prestatutako [web orrian](#) argitaratzeko agindua ematea.

**Hirugarrena.**- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, baina aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko zaio Gerentzia honi, hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko administrazio-auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean. Bi epeak erabakia Deialdian jartzen dituen tokietan argitaratu eta biharamunetik hasiko dira kontaktzen.

UPV/EHUKo GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche